

## **TOKI ENTITATEAK ETA UKRAINAKO KRISIA: INFORMAZIOA ETA GOMENDIOAK**

### **(2022ko martxoak 15)**

NUKFK, berriki, informazioa eta gomendioak biltzen dituen dokumentua igorri zien toki entitateei Ukrainako krisiaren, herrialde horretako pertsonen etorreraren eta toki administrazioek eta partikularrek laguntza emateko modurik egokienaren inguruan.

Orain, Federazioak jaso berri duen informazioarekin dokumentu hori eguneratu da ondoren duzun informazioarekin.

### **ESPARRU JURIDIKOA**

Europar Batasunak pertsona desplazatuen joan-etorri masiboen kasuetarako behin behineko Babes-zuzentaraua aktibatu du.

Espanian berriz, 1325/2033 Errege Dekretuak egoera hori arautzen du eta joan den martxoaren 10ean EAOK PCM/169/2022 Agindua argitaratu zuen zeinak Ukrainako gatazkak kaltetutako pertsonen behin behineko babesa aitortzeko prozedura zehazten duen. Halaber, PCM/170/2022 Agindua 2022ko martxoaren 8ko Ministroen Kontseiluaren Erabakia argitaratzen du, zeinaren bidez (EB) 2022/382 Gauzatze-erabakiari jarraiki Espainian babesa aurkitzen ahal duten Ukrainako gatazkak kaltetutako pertsonen emandako behin behineko babesa handitzen den. *(aipatu bi agindu horiek dokumentu honekin batera erantsirik igortzen dira).*

Behin behineko babesak honako hauek eskuratzeko eskubidea aitortzen du:

- Urtebeteko egoitza baimena eta lan baimena (norbere kontura edo besteren kontura), bi urtetaraino luzagarria.
- Hezkuntza eta lan-heziketa.
- Gizarte-laguntza eta bizi-toki egokia.
- Osasun arreta.

**BEHIN BEHINEKO BABES-PROZEDURA UKRAINAKO DESPLAZATUENTZAT** (ondorengo testua  
Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzak igorri du)

Dagoeneko onartuta, argitaratuta eta indarrean dago Ukrainako desplazatuak behin behinean babesteko prozedura, bai eta Ministroen Kontseiluaren Akordioa ere, aurreko paragrafoan aipatutako arauetan babes-neurri horren irismena zehazten duena.

Aipatzekoa da 2022ko martxoaren 4ko Kontseiluaren 2022/382 (EB) betearazpen-erabakiaren aplikazio-irismena. Erabaki horren arabera, Ukrainatik etorritako desplazatu asko eta asko dago, 2001/55/EE Zuzentarauko 5. artikulua arabera, eta behin behineko babesaren abiaraztearen ondorioz, zabaldu egiten da babesaren jasotzen ahal duten pertsonen profila. Erabakiak honako kategoriak aurreikusten ditu: Ukrainako herritarrak bertan 2022ko otsailaren 24a baino lehen bizi zirenak, Ukraina ez den beste herrialde batzuetako aberrigabeak eta herritarrak nazioarteko antzeko babesaren edota Ukrainan antzeko babesaren aitorturik zutenak 2022ko otsailaren 24a baino lehen eta kategoria horien familietako kideak. Orain, aldiz, kategoria horietaz gain honako beste pertsona hauek ere Espainian babesaren bilatzen ahal dute:

- 1) 2022ko otsailaren 24a baino lehen Espainian dauden ukrainar nazionalak, gatazka armatuaren ondorioz Ukrainara itzuli ezin direnak.
- 2) Hirugarren herrialdeetako nazionalak edo legez Ukrainan bizi diren aberrigabeak, Ukrainako zuzenbidearen arabera emaniko legezko bizileku-baimen baliadun batean oinarrituta (iraunkorra izan edo ikasle gisa beste mota batekoa izan), eta beren herrialdera edo eskualdera itzuli ezin dutenak.
- 3) Ukrainako nazionalak, Espainian otsailaren 24a baino lehen egoera irregularrean zeudenak eta, gatazka armatuaren ondorioz, Ukrainara itzuli ezin direnak.
- 4) 1. eta 2. paragrafoetan aipatutako pertsonen familietako kideak:
  - a) ezkontidea edo izatezko bikotekidea;
  - b) seme-alaba adingabe ezkongabeak edo haien ezkontidearenak, bereizketarik egin gabe ezkontzaren barruan edo kanpoan jaio zirenak edo adoptatuak izan zirenak kontuan hartuta;
  - c) hurbileko beste senide batzuk, lekualdatutako pertsona asko etortzearekin zerkusia duten inguruabarren unean familia-unitatearen parte gisa elkarrekin bizi zirenak, eta haien mendekoak zirenak, erabat edo nagusiki.

**ERREFUXIATUAK HARTZEKO LEKUAK JAKINARAZTEA**

NUKFK mezu bat igorri zien udalei Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiarekin izandako harremanen berri emanez. Zuzendaritza Nagusi horrek Nafarroan toki entitateek errefuxiatuak

hartzeko eskaintako lekuen jakinarazpenak zentralizatzea eta aipatu Ministerioari helaraztea adostu zuen Ministerioarekin berarekin. Horretarako, Federazioak toki entitateei igorritako mezuarekin batera fitxa bat bidali zuen harrera-leku horiek jakinarazteko. Halaber, Zuzendaritza Nagusiari fitxa helarazteko helbidea ere igorri zuen.

Federazioak igorritako mezua berriro bidaltzen ahal zaie hala eskatzen duten entitateei.

Orain, Nafarroako Gobernuak Nafarroan Ukrainako Larrialdiari Arreta emateko Zentroa martxan jarri du Gurutze Gorriarekin batera. Ukrainako herritarrak hartzeko lekuak jakinarazteko eta bestelako gertakari edo kontsultetarako honako helbide eta telefonoaren bidez jar daiteke harremanetan:

[emergencia.ucrania@navarra.es](mailto:emergencia.ucrania@navarra.es)

Tel.: 848 421971

Lo-lekuak eta bestelakoak eskaini edota kontsultak egin nahi dituzten partikularrek ere helbide horren bidez harremanetan jarri beharko dira.

## **UKRAINAKO PERTSONAK UDALERRIRA IRITSI DIRELA JAKINARAZTEA**

Ukrainako pertsonen iritsiera aurreko atalean adierazitako zentroan jakinarazi behar da. Toki entitateei informazio hori jakinarazteko eskatzen zaie.

Oso garrantzitsua da Nafarroara iristen diren Ukrainako pertsona guztiek dituzten eskubideak ezagutzea eta Nafarroako Gobernuarekin edo Gurutze Gorriarekin harremanetan jartzea. Udalak urrats horrekin lagun dezake.

## **ERROLDATZEA ETA UDAL ZERBITZUAK**

Udalek iristen diren pertsonak udalerrian erroldatu behar dituzte. Halaber, gomendioa da gizarte zerbitzuetan pertsona horiek artatzea eta udalerriko eguneroko bizimoduan parte hartzea sustatzea. Era berean, udal zerbitzuak ere eskura jartzea gomendatzen da (hezkuntza, kultura, kirola etab.). (Unicef-ek berriki egindako dokumentu batean, iristen diren pertsonentzako, bereziki haurrentzako, jarraibideak eta aholkuak jasotzen dira).

## **NOLA LAGUNDU**

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak bat egin du joan den ostiralean Nafarroako Gobernuak eta GGKE-k dohaintzak egiteko moduari buruz adostutako dokumentuarekin. Dokumentu hori honako estekan dago ikusgai:

<https://bit.ly/3Cj5aPr>

Bestalde, honakoak dira lurraldean bertan lanean ari diren GGKE-ak eta toki entitateek zein partikularrek emandako laguntzak bideratzeko estekak:

- GGKEen Koordinakundea <https://coordinadoraongd.org/2022/03/como-apoyar-a-las-ongd-espanolas-en-ucrania/>

- Gurutze Gorria, Media Luna Roja entitatea eta Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea: <https://www.icrc.org/es/donate/crisis-en-ucrania>
- OCHA (Nazio Batuen Gai Humanitarioak Koordinatzeko Bulegoa) Ukrainarentzako Funts Humanitarioaren bidez bideratutako laguntza: <https://www.unocha.org/ukraine/about-uhf>
- UNHCR (Nazio Batuen Erakundearen Errefuxiatuentzako Agentzia): [https://eacnur.org/es/crisis-ucrania?UTM\\_source=abtasty&utm\\_medium=bubble](https://eacnur.org/es/crisis-ucrania?UTM_source=abtasty&utm_medium=bubble)

Edozein modutan ere, dohaintzak lurraldean bertan lanean ari diren entitateei diruz egitea gomendatzen da eta ez eremura garraiatu beharreko produktuen bidez, horrek logistika arazoak sor baititzake (atal honen hasierako estekan ikusgai dagoen Gobernuaren dokumentuan azaltzen den moduan).

Halaber, eremura ez bidaiatzeko dei irmoa egin dute.

#### **GOMENDIOAK ETA INFORMAZIO OFIZIALA**

Nazioarteko Garapen Lankidetzako Agentziaren (AECIDaren) honako esteka honetan, krisiari buruzko informazio ofiziala eta zenbait gomendio eskuratzen ahal dira:

<https://www.aecid.es/ES/Paginas/Sala%20de%20Prensa/Tus%20campas%20de%20Ucrania.aspx>

Espainiako Gobernuak berriz, kontsulta-inprimaki batean “bulego” bat sortu du "1 Consultas Ucrania" izenekoa eta horren bidez Ukrainako desplazatuei buruzko kontsulta guztiak iritsiko zaizkie. Hona hemen inprimaki hortara iristeko esteka: <https://ssweb.seap.minhap.es/ayuda/consulta/ExtranjeriaCG>

Bestalde, Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak *Ukrainako larrialdiaren inguruko maiz egindako galderen dokumentu bat* argitaratu du. Dokumentu hori ere erantsirik igortzen dizuegu.